



BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 158. alea - 2011ko abendua



**Patxi Aizpitararte,
herriko apaiz berria**



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



TAILAGILEA

Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5
Tel.: 666 720 313
txirbila@gmail.com
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

Zugandik Zugana



JANTZIDENDA
LERSUNDI KALEA, 37
20820 DEBA



BURU - ZURI Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agusín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea

Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Erredakzio taldea

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal

Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale

Lege gordailua:
SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

AKTIBIDEA



Ander Salegi



9



17

Ander Salegi

KOLABORAZIOA.

Idoia Gereñu,
"Koloretako amamak".

05

INTZIA.

"Kaleak bete kartzelak

hustutzeko".

06

ALBISTEAK.

Gazte

Asanbladaren

urtemuga, Euskararen

Eguna.

07

ELKARRIZKETA.

Patxi Aizpitarte, herri-

ko apaiz berria.

08-09

BERRIKETAN

GAZTEA.

11-14

KIROLAK.

III. San

Silbestrea.

15

LABURRAK.

16-17

ZERBITZUAK.

18

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara
dagoeneko Zuhatzan;
eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko
aurrekontua du
Zuhatzak 2011 urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Euskarazko hedabideek erakundeen konpromisoa behar dute

Bederatzi hilabete badira euskarazko hedabide ez publikoak agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genituela, hiru helburu nagusirekin: 1.-Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik ere estrategikoa eta garrantzia handikoa den sektore bati buruz ari gara hitz egiten.

2.-Erakunde publikoei sektorearekiko konpromiso handiagoa eskatzen zitzairen, publizitate-inbertsio, bestelako inbertsio eta laguntza handiagorik, gaurtik bertatik hasita.

3.-Horrez gain, sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusiak erakundeekin lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen.

2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezkarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1.-2012rako aurrekontu proposamenetan jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen diru-laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskara sustatzeko diru partida. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak

desagertzeko arriskua ere handia da. 2.-Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurten baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru-laguntzetara. Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak goraka joan direnean, euskalgintzara eta euskarazko hedabideetara bideratutako diru sailak ez dira handitu; orain, aurrekontuetan estutasunak sortu direnean, ez dago gupidarik: lehendik estu dabilen sektore bati are kalte handiagoa egiteko aukera zabalduko da.

3.-Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusitu du —aurreko bi urteetan asko jaitsi da diru sail hori, eta ez du handituko—. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurrekontuetan diru saila handitzea aurreikusitu duen bakarra —47.500 euro gehiago, %12ko igoera—.

4.-Eta zer esanik ez Iparralderi buruz, non euskaldun hiztunen gale-za bizkorra (hizkuntza politika publiko baztertzailaren ondorioz) anbi-ziorik gabeko hizkuntza politika batekin paraleloan doan. Enpresa pribatuek euskarazko hedabide berriak sortzen dituzten bitartean, laguntza publikoak oraindik geldialdi berean mantentzen dira eta, aldi

berean, botere publiko gehienek ez dituzte kontuan hartzen euskarazko hedabideak beren publizitate kanpaina ordainduetan.

Jakitun gara sektorearen etorkizuna gure lanaren baitan dagoela nagusiki. Guk geuk ere aztertu behar ditugula gure indargune eta ahuldadeak, sektorean elkarrekin jardunda errazagoa izango zaigula garai zail honi aurre egitea. Zeregin horretan ari gara hilabete hauetan eta laster batean gure hausnarketa instituzioetako arduradunekin partekatu ahal izango dugu. Baina argi dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dugula erakunde publikoen laguntza handiagoa, eta hori ari gara aldarrikatzen une honetan.

Egungo erakunde publikoen dinamika ez du asko laguntzen bide horretan, eta ezin dugu isilik geratu ikusten dugunean euskarazko hedabideen sektoreak ez duela erakunde publikoen 2012ko aurrekontu proposamenetan behar eta merezi duen trataera jasoko, ustez denen begietara sektore ezinbesteko eta estrategikoa izan arren. Horregatik, erakunde publikoak eskatzen diegu gaia- ren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien ego- kitzeko, partidak handituz.

Euskarazko hedabide ez publikoak

Olentzero eta Mari Domingiren bisita

Dagoeneko gutunak jaso eta opariak prestatzen hasiak dira abenduaren 24ko gure bisitari magikoak. Iaz Santa Katalinan gaua pasa eta eguerdiko 12:30ean iritsi ziren Debako plaza zaharrera. Eguraldiak ez zuen lagundu eta haurrek Aldats pilotalekuan izan zuten hitzordua Olentzero eta Mari Domingirekin solasean jarduteko.

Aurten, eguraldia lagun baldin badugu, plaza zaharrean egingo zaie ongietorria gabon kantak abes- tuz eta plaza berrian amaituko da

kalejira. Bertan, berrikuntza bezala, Zuhatza Euskara Elkartea elkarla- nean salda eta txorizo postua jarriko du bertaratuakoen gozamenarako.

Dagoeneko laguntza deia jaso dugu gure protagonisten esku- tik, beraiek bakarrik ezin baitute herriko haur guztiengana iritsi, eta bolondresen beharra ere nabarmen- du digute. Opari guztiak Debara ekartzeko astoak erabiltzen dira, betiere abere polit eta goxo horiek ondo tratatuz. Beraz, deia luzatu nahi diegu guraso zein haurrei ere

astotxoa ondo zaindu dezaten.

Besterik gabe, gabon egun zoriontxuak igarotzea opa dizuegu guztioi. Eguberri on!

Zuhatza Euskara Elkartea





Idoia Gereñu

KOLORETAKO AMAMAK

Amantala dotorez jantzita irudikatu izan ditugu beti. Ileak ederki bilduta, sukaldean inor baino trebeagoak zirela eta, etxeko antolaketan nagusi. Halakoxeak dira amamak zuri-beltzeko argazkietan; euskal emakumearen eredu, igaro garaietako ikuspegi erromantikoan.

Azken hilabeteotan argitaratu diren argazki zuri-beltz horietako gehienak, historian atzera 75 urte egindakoak dira, urteurren ospakizunetan zaletuta gabiltzan aro horretan. Eta mingain "intelektualek", lumek eta komunikabideek, gerrak gurean izan zuen eragina eguneratu nahian, bolo-bolo darabilte gertaera latza.

Ondo asko agertu zuen aurreko *Berriketan*-eko alean Mattin Urbietak, ordea, historia beti idatzi izan dutela boteredunek. Egun, komunikabideek. Eta guk, kaletarrok, egiteko asko dugula bide honetan. Eutsi diezaiegun bada gogo gazte horri, eta bihur gaitzen guztiok kaletar komunikabide. Kaletar intelektual. Nola? Etxean dugunari jaramon eginenez.

Urrun sentitzen ditugun Amantal zuri-

beltzen Ahots haiek, antigoaleko denda zaharretan zein oroitzapen ederren kutxan gorde ohi ditugu -emakumeenak zer esanik ez-.

Aitzitik, ahots haien oihartzunak etxean, kalean eta herriko txoko ezberdinetan aurki ditzakegu oraindik. Sendian. Egunerokoan.

Historia idazteko aukerarik izan ez zuten kaletarren artean. Argazki zuri-beltz haietako haurrak, gaurko koloretako amamak berak baitira.

Abenduko egun hotzetan murgilduta, urteko azken hilabetean, ahanzturan ditugun etxeko altxorrek berreskuratzea ederra litzateke. Mahaiaren bueltan edo sutondoan, Gabon

Gauean, egin diezaiegun omenaldi

bat egungo koloretako amamei. Eska diezaiegula euren historia kontatzeko. Amantal dotoreetatik jan zuten eta zuri-beltzeko haurrak izan ziren amamak, ezagutu ditzagun. Zertarako? Kaletarrok gure historiaren intelektual bihurtzeko.

Eta oroigarri, atera dezagun familian, euskal emakumearen eredu diren koloretako amamen argazkia.



Kaleak bete kartzelak hustutzeko

Aro politiko berri batek Euskal Herria argitu du. Hamarkadetan luzatu den gatazka politikoari irtenbide justu bat aurkitzeko eginahalean bat egiten dute Euskal Herriko nahiz nazioarteko eragile politikoek, sindikalek eta erakunde anitzek. Eginahal honen fruituak ikusten ari gara, eta gaur ukazina da gure herrian benetako bake eta demokrazia egoera batera hurbiltzeko bidea egiten dihardugula.

Asko dugu egiteko, baina ez da gutxi egin duguna. Azken hilabeteotako elkarrizketa saioek eta gauzatu diren akordio eta ebazpenek gatazkaren konponbiderako oinarriak marraztu dizkigute.

Bidea egiten dihardugu, beraz, poliki-poliki, geltokiz geltoki. Gatazkaren konponbide prozesuan, arretaz begiratu behar zaie gatazkaren sorburuei eta gatazkaren ondorioei. Horrek, besteak beste, euskal preso politikoaren egoeraz hitz egitera garamatza. Azken aste eta hilabeteotan asko izan dira egoera horri erreparatu diotenak: Gernikako Akordiotik hasi eta Euskal Herriko nahiz espainiar estatuko hainbat alderditako politikariren eskutik iritsi zaizkigu gaiari buruzko adierazpen eta balorazioak.

Giza eskubideen alorrean lanean ari diren nazioarteko elkarteek ere beharrezkoa ikusi dute presoaren egoerari erreparatzea. Presoen egoera agenda politikoan dago. Gure aldetik argi dugu espetxe politika konponbidearen gakoetara ekarri behar dela. Zentzu horretan, munduan zeharreko gatazka ezberdinetan presoan aferari emandako irtenbideetatik ikasgaiak atera ditzakegula uste dugu, Irlandako prozesutik nahiz Hegoafrikatik, kasu. Presoen egoera agenda politikoan dago, bai, baina espetxe politikak oinarritzko eskubideak ukatzen ditu oraindik orain.

Egoera horretan aurkitzen dira herrian ditugun lau preso politikoak: **Jokin Urain Kixkur (26 urte beteko ditu urtarrilean, Herrera de la Mancha), Juan Mari Gabirondo Txispas (25 urte, A Lama-Pontevedra), Joxe Mari Beristain Erlete (22 urte, Puerto III-Cádiz), Jose Antonio Galarraga (18 urte erbestean eta 12 urte espetxean, Villanubla-Valladolid).** Espetxean 20 urtetik gora daramatzaten arren, beraien oinarritzko eskubideak egunerokotasunean ukatzen dizkiete. Herritik ehunka kilometrora dauden espetxeetan sakabanaturik, osasun esku-

bidea zapaldurik, ikasteko eskubidea urratua...

Ezarririk zigorrak bete ondoren espetxean mantentzen dituzte hainbat preso; horien artean aurkitzen dira Jokin, Juan Mari eta Joxe Mari, 197/06 doktrina ezarri baitiete. Gaixotasun larriak dituztenak giltzapean dituzte gaur-gaurkoz. Sakabanaketak istripuak eragiten jarraitzen du. Larritasun handiz bizi ditugun egoerak dira, urgentziaz konpondu beharrekoak.

Egoera bidegabe honen aurrean garrantzitsua da jendartearen inplikazioa. Euskal Herrian gehiengo politiko, sindikal eta sozialak hamaika aldiz eskatu du egoera honekin amaitzeko. Egoerak antzekoa izaten jarraitzen duenez, eskaerak indartzeko garaian gaudela uste dugu. Deban ere indarrak biltzen hasi behar gara; urratsak emanez, oinarritzko eskubideak errespetatzea lortu arte bidea eginez jarraitu behar dugu.

Manifestu honekin bat egiten dugun norbanako, kolektibo eta erakundeok berehala honako neurriak hartzeko eskatzen diogu dagokionari:

1.- Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea.
2.- Espainiar estatuan ezartzen den 197/06 doktrina bertan behera uztea, eta zigorra bete duten presoak askatzea. Finean, bizi osorako espetxe

zigorrenekin amaitzea.

3.- Frantziar estatuan ezartzen den bizi osorako zigorra bertan behera uztea, baldintzapeko askatasunei bide emanez.

4.- Zigorraren 3/4-ak bete dituzten presoan kaleratzea.

5.- Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak dituzten presoan zaintza egokirako beharrezko neurriak hartzea. Finean, presoan osasunerako eskubidea bermatzea da eskatzen duguna.

6.- Ireki den aro berrian gatazkaren soluzio bidean modu positiboan eragiteko frantziar eta espainiar estatuek dabilten espetxe politika konponbide gakoetan ezartzea.

Aldarrikapen horiei loturik, **dei egin nahi diogu debar orori abenduaren 30ean, arratsaldeko 19:30ean, Udaletxeko plazan burutuko dugun kontzentrazio ixilean parte hartzera, eta baita 2012ko urtarrilaren 7an Bilbon egingo den Herri Mobilizazio Orokorrean parte hartzera ere.**

Debako Egin Dezagun Bidea



Badator XI. urtemuga!

11 urte pasa dira Gazte Asanblada sortu zenetik eta 8 Mataderoa zenaren giltzak jaso genituenetik. Ilusioz beteriko lanerako urteak izan dira hauek guztiak, emaitza ezin hobeak eman dituztenak herriari alternatibak eskaintzeko orduan eta belaualdi berriak herriaren mesedetan lan egiteko prest jartzeko orduan. Leloak dioen bezalaxe, "Gaur ekin-tza, bihar gaztetxeko giltza!".

Azken hiru urteak gogorrik izan dira, izan ere, kide gutxiagoz osaturiko Asanbladak erronka askori aurre egin behar izan die; bizitzan zehar gertatzen den bezalaxe beherune bat izan dira urte hauek. Ziklo hau ixteko asmoz, hausnarketa prozesu bati hasiera eman genion pasa den urtean; honen bitartez belaualdi berriek Gazte Asanbladaz eta Gaztetxeaz zer pentsatzen eta zer nahi zuten adierazteko aukera izan zuten, kontzeptu eta ideia guztiak eguneratuz.

Orain, berriro ere, indarra hartuz goaz aurrera. Urtemuga hau garai berri honen adierazle garbia

da. Izan ere, intentzios eta ilusioz beteriko garaian gaude. Gaztetxeak duen herrigunearekiko isolamenduari eta honek sortzen dituen ondorioei aurre egin nahian, Gaztetxearen egokitzapen prozesu bati ekin diogu, debar orok honetaz gozatze-ko aukera izan dezan. Horretarako, Udaletxearekin ari gara elkarlanean proiektu bat zehazteko asmoz.

Hau guztia ez litzateke posible izango Gazte Asanbladak azkenaldian belaualdi eta kide berriengandik jaso duen bultzadagatik izan ez balitz. Hala ere, herri honi alternatibak eskaintzea guztion eskuetan dago eta horretarako guztion parte-hartzea beharrezkoa da. Horrexegatik, Gazte Asanbladaren dinamikan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu, urtemugarako zein kurtsu osoan zehar guztion ekarpena baita beharrezkoa. Gaztetxeko atearik pertsona eta ideia berriei irekita daude ostiralero gaueko 10etan ospatzen den Gazte Asanbladan.

**Debako Gazte Asanblada
Animatu eta parte hartu!**



Ezin hain lerro urritan, hitz gutxitan, azaldu hamaika urtetako jarduna, beste horrenbeste amets, zenbat hitz galdu, berpiztutako ilusio, ta oraindik egiteke duguna. Nahiz eta batzuetan grina apaldu, abaildu, eta iruditu helmuga dela biziki urruna, sentitu dela barneko grina, begirada, itzaldu, borondatea zaizula zulo beltzean amildu, lortzen dugu guztiok batera bildu eta sortzea gure asmoetatik jaiotako etorkizuna.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskararen aldeko asteburu bizia antolatu zuten Gazte Asanbladak, Kuadrillategik, Udalak eta Zuhatza Euskara Elkarteak elkarlanean. "Bixi-bixi, euskeraz bizi" leloari helduta, herritarrek ere erantzun polita

eman zieten Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimenei.

Euskararen aldeko argazkiak, Beñat Gaztelumendi eta Peio Ormazabal bertsoariekin egindako

afari herrikoia Arrano Elkartearen, haurrek pintatutako mural dotorea plaza berrian, triki-dantza-kantu kalejira, Kupela taldearen erromeria Gaztetxean... **Eskerrik asko ekime-
nekin bat egin zenuten guztioi!**



Irudiak: Ander Salegi eta erredakzioa

“Herrira irekita nago; fededuna izan ala ez, ni berdina naiz eta hemen naukazue, edozertarako irekita”

Hogeita hamabi urteren ostean, Mikel Egaña apaizaren lekukoa hartu du Patxi Aizpitartek. Beizaman jaio zen, orain dela 56 urte, eta harrezkero Billabonan, Donostian, Azpeitian edota Erroman ere ibili da.

Debara joan den urrian iritsi zen, eta oraindik ere herriari martxa hartu nahian dabilela aitortu digu. Aurrerantzean maiz ikusiko dugu inguru hauetan: egunero ematen du meza Deban, eta asteburuetan Itziarren, Lasturren nahiz Elorrixan ere jarduten du. Apaiz berria pixka bat ezagutu nahian, elkarrizketarako hitzordua eskatu zion *Berriketan*-ek. Eragozpenik gabe hartu gaitu.

Nor dugu Patxi Aizpitarte?

Beizaman jaio nintzen, baserrian. Baina haurtzaroan nire gurasoak Billabonara jaitsi ziren. 60. hamarkadan baserri askotan gertatu zen hori, baserrigintzatik enpresa eta industria mundura pasatzearena, alegia. Billabonan hazi eta hezi nintzen, han ikasi eta lanean ere jardun nintzen tailer batean, 26 urtera arte. Gero eszedentzia bat eskatu nuen, eta Donostiako seminarioan burutu nituen ikasketak. 31 urterekin ordenatu nintzen apaiz, eta lehenengo apaiz esperientzia Azpeitian izan nuen: ia 15 urte pasa nituen bertan, eta benetan zoriontsu izan nintzen. Nongoa naizen galdetzen didatenean zera esaten dut: Beizamakoa (han jaio nintzelako), Billabonatarra (nola ez!), baina azpeitiarra ere neurri batez. Gero, Donostian ondorengo hamar urteetan izan nintzen, eta azken urte eta erdian Erroman. Erromatik etorri naiz hona, Debara.

Zer moduzko esperientzia izan duzu Erroman?

Erromakoak badu azalpena. Aurreko gotzainaren bikario nagusi izan nintzen. Uriartek bi bikario zituen: Felix Azurmendi eta ni neu. Bere hurbileko lankideak ginen, eta Uriartek utzi zuenean, ba Felixek eta nik halako denboraldi sabatiko bat eskatu, eta Erromara joan ginen. Felixek han jarraitzen du, eta ni bueltan etorri naiz eta hona bidali ninduten. Atsedendaldi bat eskatu nuen pixka bat birziklatzeko, ikasteko eta abar, eta hori pasatu zenean etorri nintzen. Bitartean, Erroman pixka bat ikasten jardun naiz, Unibertsitate Gregorianoan, eta han ere oso gustura egon naiz. Erroma oso hiri irekia da: goizean iristen zara hara, eta arratsaldean bertako sentitzen zara.

Pentsa, Gregorianoan 3.000 ikasle izango ginen, eta 130etik gora nazio-takoak... Italicaraz aritzen ginen. Esperientzia oso interesgarria izan da, benetan.

Eta Erromatik Debara...

Bai, urri aldean iritsi nintzen, duela bi hilabete pasatxo. Egia esan, oraindik ez dut dena kontrolatzen. Herrietan asko kostatzen da konexioak egitea; hau da, pertsonak ezagutzen dituzu, baina konexioak egitea, familiak kokatzea eta abar kosta egiten da. Beno, poliki-poliki...

Zenbat meza ematen dituzu? Non eta zein hizkuntzatan?

Egunero ematen dut meza Deban. Gero, asteburuetan, ba adibidez batean Lasturren hasi edo Elorrixan, eta handik Debara eta Debatik Itziarra igotzen naiz. Hizkuntzari dagokionez, hori errealitate soziologikoak agintzen du. Elorrixan, pentsatuko duzuen bezala, euskara hutsean aritzen naiz, baita Itziarren ere. Eta Deban, elebitan.

Zer moduzko harrera egin dizute?

Nik Deban ez dut arazorik izan, harrera oso ona izan da lehenengo egunetik. Sarrera eguna izendatu genuen eta gotzaindegiko bikarioetako bat etorri zen aurkezpena egitera eta Mikeli despedida egitera. Orduetik ez dut sentitu hutsunerik herrian, harrera ona baizik. Parrokia inguruko jendea uste dut saiatu dela ni ondo hartzen, eta kaleko jendeari dagokionean ere, normal, gustura, ondo.


Zerk harritu zaitu gehien Deban?

Akaso harritu nau pixka bat ikusteak jendeak erraz jotzen duela erdarara, batez ere helduekin ikusten dut askotan esaldia euskaraz hasi eta

gero gaztelerara pasatzen direla. Bestetik, atentzioa eman dit orografia aldetik hau zein polita den ikusteak. Igande goizetan Elorrixarako bidea hartzen dudanean, errepidetik Itziarra bidean kostalde hori ikustea... Egongo dira Europan leku politak, baina benetan zoragarria da kostalde hau orografia aldetik, oso polita. Atentzioa eman dit, baita ere, kale bizitza alai dagoela ikusteak. Eguraldi pixka bat polita baldin badago edo, parrokia inguruan eta plazan tragoa hartzen, kuadrilarekin kanpoan... kale bizitza hori oso atsegina dela iruditzen zait. Jendea erraz kaleratzen da, kalean elkartu eta zerbait hartuz antolatzen dira lagun taldeka... giroa oso atsegina da.

Zenbat jende joaten da mezara? Beste herrieekin alderatuta, adibidez?

Berdintsu iruditu zait. Gipuzkoan ez dakit alde horretatik diferentzia handirik egongo ote den, bai tipologia aldetik eta baita kuantitate aldetik ere. Uste dut espero nuena aurkitu dudala. Nik uste nabarmena dela gure elizkizunetako mediak pixka bat gora egiten duela (adin aldetik). Hilean behin, edo abenduan bi aldiz, adibidez, familien mezak eta antolatzen ditugu: asteroko erritmoa gehiegi da igual, baina hilean behin familia mailan guraso, ume eta gazteak parrokiak bildu eta meza pixka bat atseginagoa edo hurbilekoa egiteko helburuaz gabiltza. Esperientzia batzuk izan ditugu, eta gustura nago alde horretatik. Joera da eliztarren adina gora doala, eta kristau komunitateak txikitzen doazela. Baina hori hala da Europa guztian, ez da Debako edo Gipuzkoako fenomeno bat bakarrik. Sekularizazio prozesuak bete-betean harrapatu du gure gizartea.



“Azken finean, bat apaiz egiten da merezi duten apaizak ezagutu dituelako, apaiz jatorrak”

Sekularizazio prozesua aipatu duzu. Gauzak asko aldatu dira, ezta?

Lehenago dena tutelatzen zuen Elizak eta erlijioak, dena; alegia, gizartea tutelatuta zeukan Elizak eta erlijioak. Baina poliki-poliki, behin Errenazimendu edo Humanismo garaietatik, Ilustrazioa pasata, gero modernitate... aizu! Bizitzaren alor ezberdinak bere autonomia aldarrikatzen eta lortzen joan dira. Politikan edo ekonomia alorrean, adibidez, Elizak esango du zelan egin behar diren gauzak edo zer erabaki hartu behar diren? eta zuzenbidean edo hezkuntzan? Bizitzaren alor gehienak bere autonomia lortzen joan dira eta prozesu horri esaten diogu sekularizazioa, baina Europa osoan bizitakoa da. Eta horrek alde positiboak ditu.

Zeintzuk dira alde positibo horiek?

Nik sekularizazioaz hitz egiten dudanean ez dut hitz egiten zentzu negatibo batean, ez. Nik uste dut gizarte heldu bat gizarte sekularizatu bat dela. Baina horrek ekarri dio Elizari ba... berkolokatu beharra. Zuk uste duzu, adibidez, Azepeitan, enpresa batzuetan kontzesioetako nobenatara joateko ordu erdi edo ordubete lehenago ateratzen uzten zietela langileei? Gaur hori pentsaezina da! Baina hori orain dela hamar-kada batzuk gertatzen zen, bai.

Indarra galdu al du Elizak gizartean?

Gizarteak autonomia eta heldutasuna lortu du. Eta orduan, ba ez du sentitzen Elizaren tutela beharrik. Gu gizarte anitz batean talde bat gehiago gara, ez eskubide gehiagore-

kin eta ez gutxiagorekin, ez pribilegio gehiagorekin eta ez gutxiagorekin. Bat gehiago izan beharko genuke, eta gure aportazioak egin gizartehoni, gure naturari eta gure misioei lotuta. Guk gure identitatea daukagu, eta identitate horretatik eskaini beharko genioke zerbitzu bat gizartehoni, baina ez jaun eta jabe izan gizartean. Hori pasa zen!

Hasieran kontatu diguzu, besteak beste, Billabonan lantegi batean aritu zinela lanean. Nola erabaki zenuen apaiz egitea?

Beno, halako kezka bat banuen, gazetarik esango nuke. Katekesian ibili ginen, eta orduan oraindik ez zegoen sendotza talderik. Gero, hamabost bat urtez pixka bat utzi, Elizatik pixka bat urrundu... Intsumisio mugimendua edo objekzioarena ere hasi gabe zeuden, eta ni soldaduskan izan nintzen. Handik bueltan pentsatzen hasi nintzen nire bizitzarekin zer egin behar nuen. Tailerrean egona nintzen lanean, baina zer egin behar nuen? tailerrari erabat lotu edo... pentsatzen eta esperientzia ezberdinak ikusten aritu nintzen 26 urtera arte. Gero proba bat egitea pentsatu nuen: har dezagun urtebeteko eszedentzia bat eta ikus dezagun zer den seminarioko bizitza, ikasketak eta abar. Bada, han ikusi nuena gustatu egin zitzaidan, urteak azkar pasatzen dira eta konturatzerako... apaiz.

Bokazio kontua izan zen?

Nik ez dut izan argi berezirik edo, nire bokazioa, eta beste askorena, askoz xumeagoa ikusten dut. Per-

tsona pixka bat kezkatia zara eta esaten duzu nola egin dezaket halako aportazioren bat, non pasa dezaket nire bizitza pixka bat besteen zerbitzura, ez bakarrik niretzat bizi... beno, ba halaxe izan zen. Osaba bat badut frantziskanoa eta haren eragina ere sentitzen dut batzuetan. Frantziskotarra eta oso pertsona diskrettoa da nire osaba, baina nik gogoratzen dut nola gure etxera bisitan etortzen zenean neurtu egiten gintuen, bizi genuen momentua zein zen konturatzen zen: marxismo garai fuerte haietan eta beti liburuxkaren bat uzten zigun, adibidez, hurrengo beste nonbaiten izan eta hango liburu bat ekartzen zigun... nik uste maisu bat zela, laguntza pedagogiko bat diskrezioetik. Nik uste gauza horiek eragina dutela. Beno, eta azken finean, bat apaiz egiten da, hainbat apaiz ezagutu dituelako, merezi duten apaizak, apaiz jatorrak. Nik zorte hori izan dut, kezka, osaba, gero apaiz jator batzuk ezagutu ditut nire bizitzan eta hala bizitza merezi duela adierazi didate.

Amaitzeko, Patxi, mezuren bat helarazi nahiko zenieke herritarrei?

Debako kristau elkartearen zerbitzera etorri naiz hona, baina ez nuke mugatu nahi Debako kristau elkartera. Ni herrira irekita nago, eta fededuna izan ala ez, ba ni berdina naiz, Patxi. Eta irekita nago edozein pertsona eta taldetara. Alde horretatik, horixe esan, hemen nagoela, eta irekita edozertarako.

Koldo Aperribai eta Izaro Aulestiarte

Idi-proben zaleek hitzordua dute laster Euskal Jolasen. Izan ere, urteberriko idi-probek XXXVI. edizioa dute aurten. Urtarrilaren 1etik 9ra bitarte, pilotalekuan lehia bizia izango da, eta puntu baliagarria izango da 2012 "Bilbao-Bizkaia Kutxa" sari nagusirako. Tradizioa, herri-kirola, desafioa, apustuak... urteroko hitzordu honi buruz herritarrek zer iritzi duten jakin nahian irten gara kalera oraingon. Hona hemen erantzunak:

Markos Igarza
58 urte
Tabernako nagusia



"Niri ez zaizkit idi-probak gustatzen, animaliei gaizki egiten baitie, baina batzuetan joaten naiz. Euskal Jolas pilotalekura joan izan naiz idi-probak ikustera baina, esan bezala, gutxitan. Eta Debatik kanpo ez ditut ikusi. Bestalde, apustuen inguruko mundua ezagutzen dut, bai, baina nik ez dut apusturik egiten ez zaidalako gustatzen".

Natasha Alimova
32 urte
Autonomoa



"Ez zaizkit idi-probak gustatzen idiek pena ematen didatelako, haiek nola tratatzen dituzten ikusita. Ikusi izan ditut idi-probak, baina inoiz ez naiz barrura sartu ikustera; kanpotik ikusi ditut, oso denbora gutxi gainera. Ez naiz beste herri batzuetara joan ikustera. Ez zait gustatzen apustuak egitea eta berdin zait jendeak apustu egiten duen ala ez".

Jesus Martinez
58 urte
Jubilatua



"Idi-probak gustatzen zaizkit, oso giro ona egoten delako. Euskal Jolasen egon izan naiz idi-probak ikusten, askotan gainera, baina ez naiz joan Debatik kanpo halakoak ikustera, garraioa ez zaidalako ongi etortzen. Bestetik, apustuen mundua ezagutzen dut, bai: niri ez zait gustatzen apustu egitea, baina ondo iruditzen zait jendeak apustu egitea".

Bakarne Urkiri
56 urte
Irakaslea



"Ez zaizkit asko gustatzen idi-probak, pentsatzen dudalako indar froga horiek ez dietela grazia asko egiten. Debako Euskal Jolas pilotalekuan egon izan naiz idi-probak ikusten, baina oso gutxitan. Inoiz ez zait bururatu Debatik kanpo joatea idi-probak ikustera. Ez dut apusturik egiten, ez zaidalako batere gustatzen apustuak egitea".

Gaztelekua



**DEBAKO
BOTIKAK**

GOARDIA 24 ORDUZ

• ZALDUEGI: Tel. 669 262 201
Abenduak: 17, 18, 26, 27, 28, 29. Urtarrilak: 13, 14, 15.

• BURGOA ZUAZO Tel. 667 338 890
Abenduak: 30, 31. Urtarrila: 2, 3, 4, 5, 27, 28, 29.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net

**JAR EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA
ALDIZKARIAN!**

berriketan@zuhatza.com



haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

BERRIKETAN GAZTEA

2011ko abendua
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

ARRAUN IKASTAROA



Aurten, lehenengo aldiz egin da gure institutuan Arraun ikastaroa (ikastaro hau bigarren mailakoentzat bakarrik izan da). Pasa den urriaren 13an eta 14an egin zen, hain justu. Lehenengo egunean teoria landu zuten; saio hura ordubeteko izan zen. Hasieran traineruaren zatiak erakutsi zizkieten, eta kirol honen jatorriaz ere hitz egin zieten; kirol hau balearen arrantzatik dator. Ikastaroko bigarren egunean, berriz, praktika egin zuten; beraz, arraunean ibili ziren ordu eta erdiz Debako ibaian.



Arraun ikastaro hau Ikastolen Federazioak antolatzen du eta klaseak Lekeitioko Izuntza arraun taldeko patrioiak eta entrenatzaileak eman zituzten.


Gorputz Hezkuntzarekin lotutako ikastaro hau iaz egiteko asmoa bazuten ere, ezin izan zen burutu. Izan ere, dragatzeko itsasontziak ibaia garbitzen ari ziren garai hartan.

Aurten, jendea oso gustura egon da ikastaro honetan. Hori dela eta, datorren urtean ere horrekin jarraitzeko asmoa dute.



Matthew Mason: “Hemen garrantzi handia ematen zaio familiari eta laguneiei; han, berriz, lanari ematen zaio garrantzi handiagoa”

Aurten, beste behin ere, gazte bat urrutitik etorri zaigu Ingeleseko ikasketetan laguntzeko asmoz. Elkarrizketa egiteko aprobeixatu dugu haren bisita.



Nongoa zara? Zer egiteko asmoz etorri zara honaino?

Ukiah-koa, San Franciscotik bi ordu iparralderantz; Estatu Batuetakoa. Iaz Granadan egin nituen ikasketak. Espainiara itzultzea nahi izan nuen, eta parte hartzen dudan programari esker Euskal Herrira etorri ahal izan naiz. Gainera, irakasle izatea lortu dut. Oso esperientzia ona izan da hemen lan egitea, eta herrialde desberdin bateko bizimodua ikusteko aukera izan dut.

Bakarrik etorri al zara?

Bai, ez nuen inor ezagutzen, ez Euskal Herrian eta ezta Donostian ere.

Lehenago izan al zara inoiz ikastetxe batean?

Ez. Nire lehenengo urtea da irakaskuntzan. Orain arte ez naiz inon egon irakasle.

Hemen zauden bitartean non biziko zara?

Donostian.

Aldaketa handirik nabaritu al duzu hango eta hemengo bizimoduaren artean?

Bai. Hemen garrantzi handia ematen zaio familiari eta laguneiei; han, berriz, lanari ematen zaio garrantzi handiagoa.

Euskararen beharrik sentitu al duzu hemen bizi zaren bitartean?

Gustatuko litzaidake euskara ikastea, ikasleek euren artean euskaraz hitz egiteko ohitura dutelako eta nik ezin diedalako ulertu. Baina komunika naiten beraiekin. Hala ere, ez zait baliagarri egiten euskara ikastea, hemendik kanpo ez baitit balio. Dena den, ari naiz poliki-poliki ikasten!

Zer ikasketa egin dituzu?

Historia eta Gaztelera ikasi ditut. Orain Gaztelerazko klaseetara joaten naiz, baina zuen ikastetxean egiten ari naizen lan honetan bakarrik nabil.

Noiz itzuliko zara Estatu Batuetara?

Hemengo lana maiatzarekin batera bukatzen dut. Hurrengo bi hilabeteak Granadan pasako ditut. Eta abuztuan bueltatuko naiz Estatu Batuetara.

Lagunak eta familia faltan botatzen al dituzu?

Bai, gurasoak eta anaia txikia faltan botatzen ditut, eta noski, nire lagunak ere bai.

Zure lagunak antzeko zerbait egiten ari al dira?

Ez. Nire lagun guztiak nire herrian bizi dira. Deba bezalakoa da, jendea ez da beste herrialdeetara joaten.



INKESTA

MUSIKA

Oraingoan ikaskideek musikarekiko duten zaletasunaz jakin nahi izan dugu:

- 1.- Zein da zure abeslari edo talde gustukoena? Zergatik?
- 2.- Zer estilotakoa da?
- 3.- Zein da zure abesti gustukoena?
- 4.- Bere kontzerturen batera joan al zara inoiz?
- 5.- Zer egingo zenuke abeslari hori ezagutzeko?



Leyre Elezgaray:

- 1.- Ken Zazpi gustatzen zait. Gustuko dudalako!
- 2.- Musika lasaia da.
- 3.- "Ezer ez da betiko" abestia gustatzen zait gehien.
- 4.- Ez, ez naiz inoiz joan!
- 5.- Beraien kontzertura joan.



Sara Aldamar:

- 1.- Dani Martin dut gogoko. Ondo abesten duelako.
- 2.- Pop-rock egiten du.
- 3.- "Mi lamento" abestia.
- 4.- Bai, izan naiz.
- 5.- Edozer egiteko prest egongo nintzateke.



Josu Arufe:

- 1.- Pitbull. Ondo abesten duelako.
- 2.- Estilo asko ditu.
- 3.- "Give me everything to night" abestia dut gogoko.
- 4.- Ez, ez naiz inoiz joan.
- 5.- Etxea garbituko nuke hilabete batez! Kar-kar.



Marta Aznal:

- 1.- Dani Martin. Ondo abesten duelako.
- 2.- Pop-rock.
- 3.- "Mira la vida" abestia gustatzen zait gehien.
- 4.- Bai, joan naiz.
- 5.- Larunbatean eskolara etorri.



Maite Fernandez-Quejo:

- 1.- Dani Martin abeslaria gustatzen zait. Kanta oso politak dituelako!
- 2.- Pop-rock estilokoa da.
- 3.- "Eres" abestia gustatzen zait.
- 4.- Bai, azaroaren 5ean Donostian!
- 5.- Nire esku dagoen guztia.



Jokin Oria:

- 1.- Vendetta. Ondo jotzen dutelako.
- 2.- Denetik jotzen dute.
- 3.- "La Diabla" abestia gustatzen zait.
- 4.- Bai.
- 5.- Ezer ere ez. Oso zozoa naiz.



Iraide Iriondo:

- 1.- Justin Bieber abeslaria. Ondo abesten duelako.
- 2.- Pop estiloa.
- 3.- Denak gustatzen zaizkit.
- 4.- Ez, ez dut aukerarik izan.
- 5.- Edozer egingo nuke bera ezagutzeko.



Ion Anton:

- 1.- Vendetta. Bere abestiak asko gustatzen zaizkidalako.
- 2.- Denetik.
- 3.- Abestiaren arabera.
- 4.- Bai. San Roketan.
- 5.- Ez daukat gogorik abeslaria ezagutzeko ezer egiteko.



Yenell Alcelay:

- 1.- Dani Martin (ECDL). Oso sexy-a delako.
- 2.- Pop-rock.
- 3.- "Desaparece" dut gogokoen.
- 4.- Dani Martinenera bai, baina ECDL-enera ez.
- 5.- Edozer ordaindu bere kontzertura joateko eta ikusteko.



Iratz Fernandez:

- 1.- Italo brothers. Musika ona delako.
- 2.- Techno.
- 3.- "Moon light shadow".
- 4.- Ez.
- 5.- Ez dakit.

EGILEAK: SARA ANTON, ENA ESMORIS ETA ANE BARROJA

AESLEME



Urriaren 4an, AESLEME (Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal) taldeko batzuk etorri ziren 4. DBHko ikasleei hitzaldi bat ematera. Rafa gurgildun aulkian etorri zen; berak paraplejia dauka, beraz, gerritik gora mugitu daiteke. Berarekin batera Biki erizaina etorri zen. Bien artean istripuak eta horiek izan ditzaketen ondorio txarrak nola prebenitu azaldu zuten. Bizkar-hezurreko eta burmuineko zauriek, mugitu ezina, adimena-ren galera edo hondatzea... ekar ditzakete. Horregatik, kaskoak beharrezkoak direla, alkoholik ez dela edan behar gidatzerakoan, segurtasun uhala lotuta eraman behar dela befi, igerilekuan egiten diren saltoekin kontu handia eduki behar dela... eta halakoak azaldu zituzten. Ikasleek interes handiarekin entzun zuten guztia, azken finean gure onerako baita.

DenBora-pasaK

HIEROGLIFIKOA

Bere ahotsa...



Mihiluze programatik hartutakoa

HUTSUNEAK BETE

Hemen duzue Vendetta taldearen "Begitara begira" kanta. Bete hutsuneak. Ondoko web orrian duzue abestia entzuteko aukera: <http://www.youtube.com/watch?v=uZ8Cm72zNRM>

Begitara begira

..... momentutxo batez
ta hartu lekua ene lagunen artean
Begiraiguzu denoi zuzen
azalpen ugari zor dizkiguzu ta
Esaiguzu hizkuntza hau ez dela geurea
Herri faltsu bat izan dugula
gure arteko ta
lekuz kanpo sentitzen dituzun horrek

Begitara begira, begitara begira
Lekuz kanpo gaudela (bis)

Zeure palku-kideek entzun ez dezaten
uzkurtu eta esaidazu belarrira
Bizi-bizirik dela ez al duzun ikusten
neurea ta neure herria

Zoritxarrez badakit galderen kantu hau
entzungo duen azkena zeu zarela
Beraz dut kalean topatu
ta honakoa oihukatuko dizudala

.....,
Lekuz kanpo gaudela esaiguzu (bis)

Lurretik lorera, loretik
Legetatik urrun, malkotatik gertu
Esaidak lagun, eskutik heldu ta begitara
Herrian zutik jarraituko diagula...

....., begitara begira
Lekuz kanpo gaudela esaiguzu (bis)

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDEA 2011-2012

Nerea Agirregabiria Ane Baroja
Leire Alberdi Alaitz Escudero
Sara Anton Ena Esmoris
Ainhoa Azkarate

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

San Silbestre lasterketa herrikoa, urtea agurtzeko

Abenduaren 31n hirugarren San Silbestrea izango dugu Deban. Lasterketa herrikoa Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeak antolatuko du, Debako Udalaren laguntzarekin, eta dagoeneko hasiak dira ekimenaren nondik norakoak zehazten (informazio gehiago duzue eskuragai <http://debasansil.blogspot.com-en>).

Aurreko bi urteetan San Silbestreak izandako arrakastaren ostean, aurtengo hitzordua berrikuntza txiki batzuekin biribildu nahi izan dute. Eta, hori hala, herriko haurrek ere aukera izango dute udaletxearen inguruan korrika egiteko. Azken finean, arduradunen esanetan, "familia eta lagun artean goiz alai bat proposatu nahi da urtea ongi bukatzeko. Debako kaleak musikaz eta giro onez betetzen saiatuko gara".

Erronka horri helduta, hiru lasterketa mota egingo dira urteko azken egunean; horietako bi etxeko txiki eta gaztetxoentzako. Hona hemen horien inguruko xehetasun nagusiak:

***Gaztetxoak 1 (5-8 urte bitartean):**
Ordua: 11:15ean, Udaletxe aurrean.



Ibilbidea: 200 metro, plaza inguruan. Izen-ematea: doakoa. Parte hartu nahi duten gaztetxoak 11:15erako inguratu beharko dira irteerara.

***Gaztetxoak 2 (8-12 urte bitartean):**

Ordua: 11:30ean, Udaletxe aurrean. Ibilbidea: 400 metro, plaza inguruan. Izen-ematea: doakoa. Gaztetxoak 11:30ean inguratu daitezela irteerara.

***Nagusiak (12-14 urte bitarteko gazteek nagusi batekin egin dezakete ibilbidea).** Aurreko bi edizioetan bezalaxe, bost kilometroko ibilbidea egin beharko dute. 12:00etan udaletxe paretik irtengo da lasterketa, eta kiosko parean egongo da helmuga. Sari banaketa eta hamaiketakoa, berriz, udaletxe azpian egingo dira.

Lasterketan parte hartu nahi dutenek Turismo Bulegora jo beharko dute, abenduaren 30a bitarte, eta bost euro ordaindu beharko dituzte (gurasoekin doazen gaztetxoek doan parte hartu ahal izango dute).

Egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera (udaletxe azpian, 10:45ean), oraindik dortsalak soberan baldin badituzte, behintzat.

Lasterketa amaitzen duten herriko lehenengo neska-mutilek oraigarri bat jasoko dute sari modura. Bukaeran parte-hartzaileentzako salda beroa eta txorizo egosia banatuko dute udaletxe azpian (dortsala bueltatu beharko da mokaduz gozatu ahal izateko).

Deba eta Itziarko 50 bat lagun Behobia-Donostia lasterketan

Ia 20.000 atletak hartu dute parte aurtengo Behobia-Donostia lasterketan, eta parte-hartzaileen artean debar zein itziartarrak ere izan dira, beste behin ere. Guztira 50 bat lagunek amaitu zuten azaroaren 13an egindako proba -iaz 40 bat izan ziren-.

Korrikalari gehienek Deba-Itziar Extreme Taldeak antolatutako autobusean egin zuten joan-etorria, eta denbora onak egitea lortu zuten. Rikardo Idiakez itziartarrak 1:27:10 denbora egin zuen, adibidez, eta zazpi segundoko tartarekin iritsi zen helmugara Ibon Oñederra ere. 1:30 denboraren azpitik ibili ziren Danel Fernandez de Jauregi (1:28:23),

Aitor Narbaiza (1:28:51), Iñigo Formariz (1:28:52) eta Asier Pastor (1:29:23) ere.

Senior kategorian, gizonezkoetan, Jon Ormaetxea, Aitor Gartzia, Zigor Gartzia, Juanma González, Aitor Ruiz de la Torre, Harkaitz Aizpurua, Unai Pastor, Iban Galin-dez, Mikel Iriondo, Iker Prieto, Jesus Mari Beitia, Iñaki Aristi, Jon Etxaniz, Beñat Ruiz, Alberto Gordoa, Haika Altzibar, Iñigo Azkoitia, Oscar Bravo, Ibon Iriondo, Jon Besga eta Joseba Beristainek ere amaitu zuten proba.

Lur Altzibar izan zen azkarrena senior kategorian, emakumez-

koetan: 1:57:21. Bi minutu baino gutxiagora Izaskun Beristain iritsi zen, eta Itsasne Aldabaldetrekuk 2:27:31 denboran egin zuen ibilbidea.

Beteranoen artean, hauek aritu ziren: Angel Mari Mancisidor, Juan Carlos Salgado, Ibon Arrizabalaga, Efren Izagirre, Juan Jose Urain, Juan Jose Alcelay, Iñaki Mandiola, Cristobal del Corte, Juan Antonio Izagirre, Jose Luis Sudupe, Angel Amilleta, Joxe Mari Altzibar, Juan Carlos Carrillo eta Xabier Ciaran. Emakumeen artean Marijo Larrañaga eta Ana Jesus Urzelai izan ziren, eta Unai Zulaikak (junior) ere lortu zuen lasterketa bukatzea.

Seven Clovers
Irish pub
Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

 Bar LOREA
"Orotariko tartak etxean eginak"
Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Debabarreneko VII. Turismo Jardunaldiak

Kultura ondarearen balioa eta bere eginkizuna gune turistikoaren gizarte eta ekonomia garapenean

Debegesak antolatuta, eta Foru Aldundiaren eta Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, Debabarreneko VII. Turismo Jardunaldiak egin ziren azaroaren 17an Debako Aisia Kresala Hotelean. Sektore turistikoari lotutako 80 profesional (agente turistikoa, enpresari, instituzioetako ordezkari...) batu ziren bertan. Jardunaldiak 9:30ean hasi eta 18:00etan amaitu ziren, Santa Maria elizara egin zen bisita gidatu bereziarekin.

Hitzaldiekin hasi aurretik, Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendari Isabel Muelak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismoko diputatu Jon Uriguenek eta Debako Maider Zubikarai alkateordeak ongi etorria egin zieten guztiei.

Ponentzia markoa Jordi Pardo kataluniarrak eskaini zuen, Kultura eta Turismo Laborategiko koordinatzaile zientifikoak. Pardok maisuki azaldu zuen topaketen gai nagusia, alegia, kultura ondarea eta turismoa lurralde-

garapenearen eragile eta lehiakortasun-sortzaile gisa. Ondoren, Frantziako arte eta historiako kasu arrakastatsuek eman ziren ezagutzera. Gainera, EvoCH europar proiektua aurkeztu zen, kultura ondarearen balio ekonomikoa neurtzea helburu duena. Bazkalaurretik landa-mundua, turismoa eta kultura izan zituzten hizpide. Arratsaldean, berriz, ondareari buruzko Gaztela Leongo esperientzia berri-tzailea azaldu zen eta amaitzeko IKTek kultura-ondarearen kudeaketan eta komunikazioan duten garrantzia izan zuten mintzagai.

Azkenik, parte-hartzaileek Santa Maria eliza bisitatzeko aukera izan zuten. Bisita berezia izan zen: erai-kinak kultur ondare gisa duen balioa ezagutu ez ezik, Goaz taldeak "Irulearen kondaira" ederki antzeztu eta Aitzuri abesbatzako zenbait kidek ere bikain abestu baitzuten. Zorionak egingandako lanagatik eta mila esker!

Debako Udaleko Turismo Saila

80 BAT LAGUN GPUNTUKO FINALERA

Azken asteotan, Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalerako sarrera salmentaz eta autobusaren antolakuntzaz arduratu da Zuhatza, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin elkarlanean. Deialdiak izan duen harrera beroa ikusita, Deban azken urteotan bertsolaritzarekiko zale-tasuna indartzen doala nabaritu dugu: Illunbeko finalera animatu diren herritarren kopurua dugu, besteak beste, horren erakusle.

Zuhatzak ere euskara eta euskal kulturaren aldeko ekime-nekin bat egiteko apustua egina du, baina argi dugu antzeko zereginetan jarraitu ahal izateko ezinbestekoa dugula elkarteko bazki-deen laguntza. Hori eskertze al-dera, hain justu, oraingoan Gpuntuako finalerako bi sarrera zozketatu ditugu bazkideen artean: **Miren Gurutze Ugarte** eta **Jose Luis Mugarza** dira sarituak!

errespetua


Debabarrena gara
www.gurebalioak.com

gurebalioak
DEBABARRENA

Amaiur koalizioa, bozkatuena Deban

Espainiako hauteskunde orokorretan, Amaiur koalizioak jaso ditu boto gehien Deban, 1.494 guztira. EAJk 887 boto; PSEk 288; PPk 165; IU-Ezker Anitzak 79; EQUOk 19; PACMAk 14; UPyDk 13; PUM+Jk 11; U.C.E.-k 2 boto. Boto zuriak 26 izan dira, eta baliogabeak 16. Guztira 2.988 herritar joan dira hauteslekuetara. Abstentzioa %29,63koa izan da -2008an %42,75ekoa izan zen-.

Alderdiak	2011
Amaiur	1.494 (%49,8)
EAJ	887 (%29,5)
PSE-EE	288 (%9,6)
PP	165 (%5,5)
IU-Ezk.Ani.	79 (%2,6)
EQUO	19
PACMA	14
UPyD	13
PUM+J	11
U.C.E.	2



Deba ibaia, lehen baino garbiago

Azaroaren 13an eta 20an Deba eta Ego ibaiak garbitzeko lan-saioak burutu ziren Debabarreneko eskualdean eta 100dik gora boluntariok hartu zuten parte ekimen horietan. Deban, 30 boluntario batu ziren, haur eta helduak -eskualean Deba izan da, Soraluzerekin batera, boluntario gehien elkartu dituen herria-.

Boluntarioak 10:00etan hasi ziren ibaia garbitzeko lanetan Casa Campo inguruan. Hiru orduz zaborra jasotzen egon ostean, 60 bat zabor-poltza bete zituzten! Zabor hau guztia guk, herritarrok, botatako hondakinak dira. Hain zuzen, ekimen honekin Debegesak kontzientziario eta sentsi-



bilizazio kanpaina egin nahi izan du, denok jabetu gaitezen zenbat zabor pilatzen den ibaian eta ingurumena errespetatu eta zaindu dezagun.

Lerro hauen bitartez Debegesak eskerrak eman nahi dizkie Debako boluntarioei eta datorren urtean ere parte hartzeko deia luzatzen die.

Debegesa

Santa Zeziliaren omenez



Ander Salegi

Aurten ere, musikarien zaindariaren eguna ospatzeko emanldirik ez da falta izan herrian. Azaroaren 25ean, adibidez, lagun talde eder bat kantuz kantu, eta kalez kale, aritu zen iluntze partean. Hilaren 26an, lekukoa txistulariek hartu zuten, eta kalejiraren ostean udaletxe azpian eskaini zuten kontzertua. Debako Bandaren emanaldia, berriz, elizako klaustroan egin zen, eta bazkaria ere egin zuten Santa Zeziliaren omenez.



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

API


Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



AGENDA

***Abenduak 21, asteazkena**
Santo Tomas Eguna.

***Abenduak 24, larunbata**
-12:30. Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitarteko postua Foruen Plazan.

-13:00. Aitzuri Abesbatza, kalez kale.

-17:00. Presoen aldeko Olentzero. Plaza zaharretik irtengo da.

***Abenduak 26, astelehena**
-12:00. Jaiotza Biziduna (4 eta 5 urtekoak, Belengo sehaskatxoan; 6 eta 7 urtekoak, *La-la-la*; 9 urtetik gorakoak, dantza (musika eskola); 8 urtetik gorakoak: okinak, dendariak, gaztaina-erretzai-leak, artzainak, arotzak...).

***Abenduak 28, asteazkena**
-Debalai elkarteak anto-

latutako gabonetako haur parkea, Aldats pilotalekuan.

***Abenduak 30, ostirala**
-19:30. Presoen aldeko kontzentrazio isila, Foruen plazan.

***Abenduak 31, larunbata**
-12:30. III. San Silbestrea. Nagusien lasterketa udal-letxe parean hasiko da. Informazio gehiago: ale honetako 15. orrialdean.
-20:00. Debako Musika Bandaren Gabon Zahar kontzertua.

***Urtarrilaren 1etik 9ra**
-Urteberriko XXXVI. Idi Probak, Euskal Jolasen.

***Urtarrilak 4, asteazkena**
-Bizar Zuri. 19:00etatik aurrera herriko kaleetan zehar.

***Urtarrilak 5, osteguna**

-Errege Kabalgata, 19:00etatik aurrera herriko kaleetan zehar.

***Urtarrilak 7, larunbata**
-Zoro Feria. Egun osoko egitarau berezia antolatuko da. Ohiko bideetatik jakinaraziko da.

***Urtarrilak 15, igandea**
-8:30. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatutako mendi irteera: Gorla-Irimo-Urretxu.

GAZTELEKUA

-Gabonetarako egitarau berezia antolatu du Gaztelekuak. DebaCup II. Nazioarteko Futbol Txapelketa, Ping-pong eta Futbolin Txapelketak, irteerak... eta askoz gehiago! Animatu eta parte hartu!!



IV. Animazio Zinemaldia Abenduak 26tik 30a bitarte, Agirre Jauregiko Ispiluen Gelan

- **Abenduak 26, astelehena:**
-19:00. "*Chico & Rita*", 2010. Fernando Trueba & Mariscal.
-22:00. "*La Novia Cadaver*", 2005. Mike Johnson & Tim Burton (Gaztetxean).
- **Abenduak 27, asteartea:**
-17:00. "*Sevillako Banpiroa*", 2007. Antonio Zuberu.
-19:00. Nontzefilmak 2011.
- **Abenduak 28, asteazkena:**
-17:30. Animazioari buruzko xehetasunak. Hitzaldi interaktiboa Gaztelekuan.
- **Abenduak 29, osteguna:**
-17:00. "*Cristobal Molon*", 2006. Iñigo Berasategi & Aitor Arregi.
-19:00. "Número 9", 2009. Shane Acker.
- **Abenduak 30, ostirala:**
-18:30. Gortina lehiaketa. Animadeba tailerra.
Per la Pau animazio lehiaketa

**Animadeba tailerrak:
abenduak 3, 10, 17, 26 eta 27
(9:30etik 13:00etara).

Gazte Asanbladaren urtemugaren harira antolatutako egitaraua:

11 Urte 11 Borroka: Abenduaren 26-30a
A-26: Txokolatada Plaza Berrian
A-28: Euskal Selektzioaren partidora irteera
A-30: Ginkana herritik
Bazkaria Arrano Elkarteak
Elkartasun Astea: Abenduaren 30etik Urtarrilaren 7ra
-Euskal presoen inguruko hitzaldia
-Preso bat gutun bat
A-30: Azken Ostirala
U-7: Egin dezagun bidea

ORDUTEGI BEREZIA LIBURUTEGIAN

Abenduaren 26tik urtarrilaren 6a bitarte, **Ostolaza Udal Liburutegiak** ordutegi berezia izango du. Goizez bakarrik egongo da zabalik.

*Liburutegi orokorra, astelehenetik ostirala bitarte, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.



Gure pirata Ara Laka
Espazak hiru urte bete-
ko ditu hilaren 26an!



Ekaitz Aperribai
Unanuek 5 urte egin
ditu. Muxu handi bat!



Hilaren 22an 12 urte
beteko ditu Jon
Aztiria Oartzabalek!




Juanma Oartzabalek
ere hilaren 22an bete-
ko ditu urteak!



ZURE

ENTZUMENA

ZAINTZEN



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com



ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPUZKOA)

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teleline.es



SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com



ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Sokagiu, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 432
BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA



Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

Tel: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

e-mail: jk@informatikajelektronika.e.telefonica.net



Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

BADATÓZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI!



EGUBERRI ON!!

Abenduak 24, larunbata
12:30ean ongietorria plaza zaharrean.
Ondoren, salda eta ogitarteko postua Foruen Plazan.